

ARITZATXUKO KANTINEA ESLEITZEKO OINARRIAK

1.- XEDEA. Oinarrion helburua da Aritzatxuko kantinea ustiatzeko esleipena eta hondartza hori jagotea.

2.- PARTE HARTZEKO GAITASUNA. Bermeon bizi diran 18 urtetik gorako pertsona euskaldun danek parte hartu ahal izango dabe ustiapen horretan, jarduteko ahalmen osoa badaukie, eta ez badaukie Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezarritako kontratatzeko debekurik. Era berean, beharrezkoa da administrazio honeguz zigor-espediterik edegita ez eukitea, ezta sorrik izatea udalagaz

3.- ESLEIPENAREN IRAUPENA. Esleipena Foru Aldundiak kantineko obrak amaitzen dabenezatik irailaren 30era artekoa izango da, biak barne. Epe hori luzaezina izango da eta hori amaitu ondoren, gunea lehengo egoeran itxi beharko da, garbi eta guneari kalterik sortu barik, horretarako udalak jagokan ikuskapena egingo daualarik. Ezelako kalterik sortu badira, horren gastuak esleipenaren kontura izango dira.

Epe horretan interes publiko bategaitik udala behartuta egongo balitz esleipena bertan behera ixteko, esleipedunak jagokan konpentsazio ekonomikoa hartzeko eskubidea izango dau.

4.- ESLEIPENERAKO SISTEMEA. Esleipenerako sistema ZOKKETEIA izango da.

5.- ENKANTE MOETEA ETA BERMEA. Ez da enkante moetarik ezarten, izan be, emondako zerbitzuak eta ustiapenaren gizarte interesa ustiapen horreguz bat datozala ulertzen da. Era berean, ez da bermerik ezarten.

6.- PROPOSAMENAK. Kantinearen esleipena lortzeko Postuaren esleipena lortzeko proposamenak udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Berh@z bulegoa, Ertzilla kalea 6-8),

Epea: Iragarkia Bando bidez kaleratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamabost lan-eguneko epean.

Ordutegia: Astelehenetik barikura, 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan, 16:30-19:00. Larunbatetan, 10:00-13:00. * Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Instantzia.
- Eskaintzaileen NAN edo ENAren fotokopia.



- Udalerrian bizi dala egiaztetan dauen errolda-ziurtagiria.
- Ustiapena egiteko eukiko dauzan langileak.

7.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
Emakidadunak honeek eskubideak eta betebeharrak eukiko dauz:

a) Kantinea jentearentzako zabalik egongo da egunero, 10:00etatik 20:00etara, eta ezelan be ezingo da zabalik egon ordu horretatik aurrera.

b) Kantinea, gehienez be, hilean 2 egunetan egon ahal da itxita, horretarako aurretiaz udalak baimena emon badau eta erabiltzaileei abisua emon bajake, gitxienez, 2 egun arinago. Egun horrek ez dira metagarriak izango. **Kantinea itxita dagoan egunetan be komun publikoak garbitu beharko dira.**

c) Esleipenaren epean, esleipendunak komun publikoak egunean 2 aldiz garbitu beharko dauz, goizez eta arratsaldez, baita kantinea zein instalazioen inguruak be.

d) Ustiapena pertsonalki egin beharko da, dokumentazioan zehaztutako giza baliabideen bidez, eta ezelan be ezingo da ustiapena errentan emon edo beste bati laga.

e) Instalazioak eta emakidaren guneak egoera onean mantendu beharko ditu esleipendunak. Instalazioak, horreen inguruak eta hondartzea garbitzetik sortutako sastarrak dagozkien edukiontzietan utzi beharko dira.

f) Esleipendunak berehala jakinarazo behar dauz kantinan zein ganerako instalazioetan sortutako irregulartasunak, baita beraren borondatez kanpokoak badira be.

Esleipendunari egotzi lekiozan kalteak badagoz, esleipendunak berak konpondu beharko dauz edo udalak konponduko dauz, ordezeko exekuzino bidez, esleipendunaren pentzura.

g) Bermeoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren Kudeaketarako Sistema Integratuan dago Aritzatxu hondartzea kudeatzeko, beraz, sistema horrek ezarritakoa bete beharko dau esleipendunak. Horretarako, eskatzen jakozan agiriak bete beharko dauz (fitxak, etab.) eta udalaren laguntza eta argibideak eskura eukiko dauz.

h) Emakidunak, epe barruan, erabileraren xede diren ondasunak administrazioaren esku, libre eta hutsik izteko betebeharrak dauka eta onartu egiten dau administrazioak daukan ahalmena botatzea erabagi eta berak exekutatzeko.

i) Kontzesioa hirugarren kalte barik eta jabetzaren eskubideen salbu ulertuko da.



j) EUSKEREAREN ERABILEREA:

1. Esleipendunak edo postuan egongo dan edozein langilek euskeraz jakin beharko dau, gitxienez ahoz; eta nahikoa gaitasun izan beharko dau zerbitzua euskeraz emoteko.

2. Bezeroakaz lehenengo berbea euskeraz izango da beti.

3. Ezinbestekoa izango da postuan ezarriko diran errotuluak, kartelak... euskeraz izatea. Euskeraz eta erderaz ipini behar izatekotan, euskerazko testuari lehentasuna emongo jako, hau da, hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango da euskeraz.

5. Aurreko puntuan zehaztutako guztiak kalidadezko euskeraz ipiniko dira. Horretarako, esleipendunak udaleko Euskera Sailaren zerbitzua erabili ahal izango dau.

6. Musika ipintekotan, musika euskaldunak gitxienez %50eko kuotea bete beharko dau.

8. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko esleipendunagazko hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

8.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUNKIZUNA BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGAITIK. Emakida indarrean dagoen bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da emakidaren eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

9.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

a) Arau-hauste arinak izango dira:

- Instalazioak garbitzeko betebeharra lehenengoz ez betetea.

- Udalak agindutako edo oinarriotan ezarritako arauetako edozein lehenengoz urratzea.

b) Arau-hauste larriak izango dira:



- Arau-hauste arin 2 egitea.
- Emakidagaia behar dan legez ez erabiltea edo udalaren baimen barik obrak egitea bertan.
- Udal zerbitzuetako edozeinen ikuskapen bat ez onartzea.

c) Arau-hauste oso larriak izango dira:

- Arau-hauste larri 2 egitea.
- 7.b. puntuan ezarritako mugak eta obligazioak ez betetea.

Arau-hauste arinakaitik 30 eurorainoko isunak jarri ahal izango dira. Arau-hauste larriakaitik 30,05 eurotik 150,25 eurora arteko isuna ipiniko da, eta oso larriakaitik, 150,25 euroko isuna eta emakidea bertan behera ixtea.

Arau-hauste arinakaitik eta larriakaitik zigorrak ipinteko Alkatetzaren akordioa beharko da, interesdunari entzunaldia emon eta gero. Arau-hauste oso larriak Udalbatzak zigortuko dauz, jagokozan tramiteak bete eta gero.

Bermeon, 2015eko apirilaren 30ean

